

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AIARAKO KUADRILLA

**Hutsen zuzenketa, abenduaren 21eko ALHAOn (146. zk.) argitaratutako 3455/2022 iragarkiaren oinarri espezifikoei buruzko II. eranskinean**

Aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuaren esparruan, Aiarako Kuadrillako plaza bat lehia-keta-oposizio bidez betetzeko salbuespenezko deialdiaren oinarri orokorrak eta espezifikoak argitaratzen dituen iragarki horretan, akats bat antzeman da, zeina lehendakariaren urtarrilaren 12ko 3/2023 Dekretuaren bidez zuzendu baita.

Oinarri espezifikoei buruzko II. eranskinean, 24. orrialdean, bai gaztelaniaz bai euskaraz, berdintasun teknikari lanpostuari dagokion 2.3 puntuan.

Honakoa dioen lekuan:

“2.3.– Oinarri orokorretako 2. h) atalean xedatutakoari dagokionez, Unibertsitateko Gradua eta emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikastaro bat egin izana, gutxienez 150 ordukoa, unibertsitate edo administrazio publiko batek emana titulazioa eskatzen da.”

Hau esan behar du:

“2.3.– Oinarri orokorretako 2. h) atalean xedatutakoari dagokionez, Unibertsitateko lizentzia, gradua edo horien baliokidea eta emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikastaro bat egin izana, gutxienez 150 ordukoa, unibertsitate edo administrazio publiko batek emana titulazioa eskatzen da.”

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Arespalditza, 2023ko urtarrilaren 12a

*Lehendakaria*

*ENCINA CASTRESANA ASTARLOA*